


Hizkuntz ukipen-egoeran
hizkuntzak lortzearen
psikolinguistika

Gai monografikoa



SARRERA

Lan honek «*Adquisición de segundas lenguas en situación de lenguas en contacto. Un análisis psicolingüístico*» doktoradutzarako tesiaren laburpena eskaintzen du. Tesia Maria Jesus Espik egina da, Maria Jose Azurmendi irakaslearen gidaritzapean, eta 1989ko apirilean defendatu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean.

Ikerketaren aztergaia hainbat bigarren hizkuntza ukipen-egoeran (5) (edo elebitasun sozialean, Azurmendik 1981ean emandako definizioaren arabera) lortzeko prozesua zen; hain zuzen ere, gaur egun Euskal Herriko Elkarte Autonomoan benetan ematen den egoeran (Euskal Herriaren barnean edo Euskal Hizkuntz Komunitatean).

Eskura daitezkeen bigarren hizkuntzez ari garenez, argi berezi nahi ditugu gure hizkuntz ukipen-egoeran dauden hizkuntzak eta hizkuntza arrotzak edo hemen-go hizkuntz ukipen-egoeran ez daudenak.

Zehazki, hizkuntz gehiengoko subjektuak aztertuko ditugu, hots, lehenengo hizkuntza espainiera edo gaztelera dutenak, eta nola eskuratzen dituzten hauek euskara, gizarte honetan ukipen-egoeran dagoen hizkuntza bat, edota frantsesa eta ingelesa, ukipen-egoeran ez dauden hizkuntza arrotzak. Gure ustea da alderdi berdinak eta desberdinak aurkituko ditugula bi mota horietako hizkuntzen eskurapen-prozesuetan.

OHoko 5. eta 8. ikasturteetako ikasleak ditugu aztergai, 11 eta 14 urteko gazte-txoak, bigarren hizkuntza eskuratzeko bide nagusia eskolan dutenak. Beraz, eskolan lortutako haur-elebitasun kontsekutiboaz ari gara, Hamers eta Blanc-en 1982ko sailkapenari jarraituz.

Eskola-adin hori eta eskola-giro hori hartu ditugu geure lanean aztergai, bi eginkizun hartzen ari delako gaur egun eskola bere gain: alde batetik, irakaskuntzaren demokratizazioa, gure gizartean elebitasun orekatuaren zabalkundea sustatuz, eta, bestetik, modernizazioa, hainbat hizkuntza arrotzen eskurapena ahalbideratuz, esate baterako. Euskara gaur egun bere estatusaren birdefinizioan bizi da, hiztunen kopurua handitzeko eta barruti gehiagotara zabaltzeko kanpainak eginez. Adituen iritziz, beharrezkoa da hizkuntza hori obligaziozko hezkuntz programetan sartzea berreskuratu nahi bada; beharrezkoa, nahiz eta erabat normalduko duen bermerik ez eskaini.

Frantsesa, eta batez ere ingelesa dira, jakina denez, gure hezkuntz sisteman gehien itsatsitako hizkuntza arrotzak. Hortik dator hizkuntza horien eskurapen-prozesua, euskararenarekin erkatuz, ikertzearen garrantzia.

Disziplina anitzeko ikuspegitik ekin diogu ikerketari, psikosoziolinguistikarenetik oraingoan, alderdi linguistiko, soziologiko eta psikosozilogikoak arakatuz; ezinbesteko jotzen bait ditugu hizkuntz fenomenoak orokorrean eta berauen eskurapenekoak prezeski ulertzeko.

Bestalde, gure ustez, lagungarri gerta dakioke jendeari bigarren hizkuntza desberdinen eskurapen-prozesuen ezagutza psikosozial sakonagoa izatea; errazagotu egingo bait lizkioke bai elebitasun soziala bai norberaren eleaniztasunera iristeko bideak, honek maila guztietan dituen abantailekin.

Hizkuntz ukipen-egoeran hizkuntzak lortzearen psikolinguistika

M.J. Azurmendi/M.J. Espi

1. Sarrera

2. Oinarri teorikoak

- 2.1. Psikosoziolinguistika kanadiarra
- 2.2. Gizarte-psikologia eta hizkuntza. Bristol
- 2.3. Laburbilduma

3. Ikerketa enpirikoa

- 3.1. Lan-hipotesiak
- 3.2. Emaitzak
 - 3.2.1. Lan-hipotesiei dagozkien emaitzak
 - 3.2.2. Emaiza linguistikoak
 - 3.2.3. Beste zenbait emaitza

4. Ondorioak

- 4.1. Eskuratzeko dagoen bigarren hizkuntzari (H2) buruz
- 4.2. Jarraitutako hizkuntz erduei buruz
- 4.3. Ikertu diren bi adin-taldeei dagokienez
- 4.4. Azkeneko gogoetak. Geroari begira

5. Oharrak

6. Eranskina: Hizkuntz errendimenduaren (RL) ezaugarriak

7. Aipuak

1. SARRERA

Hemen laburbildutako lan hau (1) bi zatitan banatu da: oinarri teorikoak eta ikerketa enpirikoak.

Lehen zatia ren hasieran ikuspegi multidisziplinarraren eta interdisziplinarraren beharra azaldu eta defendatzen da, eta ikuspegi psikosoziolinguistikoa egokitzearen premia azpimarratzen hizkuntza orohar ikertzen duten lanetan eta bigarren hizkuntzaren eskurapenaz dihardutenetan bereziki.

Gero, hizkuntzaren lorpena analizatzen dugu, ikuspegi desberdinetatik analisatu ere, bigarren hizkuntzen eskurapenaren azalpenari buruzko teoria eta ereduak heldu aurretik.

Bigarren atal hau da zabalena, bigarren hizkuntzen eskurapenari eskainia. Aurreko lanen arabera, eskurapen horretan zerikusi duten aldagai-mota desberdinak aztertzen ditugu lehenengo eta hainbat eskolak eskaini dituen esplikazio-ereduak gero. Ekarpen horiek guztiak eskema bakar batean sartzen saiatuko gara azkenik. Eskema hori dateke guk geure egiten dugun eredu teorikoa eta ikerketa honetako oinarri teoriko moduan erabiliko duguna. Bi zutabe teoriko dira funtsean gure eskema bateratzaile honen iturriak:

— Giles eta Bristol-eko Eskola (Psikologia sozial europarra eta Hizkuntza).

— Psiko- eta Soziolinguistika kanadiarra; izen zabal honetan bildu nahi ditugu hizkuntzaren ikerketan lurralde hartan eman diren idazle asko eta garatu diren hainbat teoria.

Gero ikertuko ditugu xehekiago bi zutabe teoriko horiek eta aukeratzeran eraman gaituzten arrazoiak.

Aurreko lanketa teorikoaren aldean nolarebait autonomoak diren bi kapitulu osatuko dute alderdi teorikoa. Hemen sartu beharrekoak iruditu zaizkigu, hala ere, ikerketa enpirikoaren markoa bere osotasunean argiagi ikusteko bidea ematen bait dute.

Lehenengoa euskarak gizartean duen

egoeraren analisia da; hori da gurean hizkuntz ukipenean dagoen hizkuntza minoritarioa. Beronen garapen historikoaren agerpen labur bat emango dugu eta gaur egungo errealitatearen azalpen xehetuagoa, Giles, Bourhis eta Taylor-en (1977) bizitasun etnolinguistikoko (3) eskema teorikoaren arabera, demografi datuak eta estatus eta erakundeen babesari buruzkoak erabiliz. Eskema hori probetxuzkoa da, gure lan honetan ikertuko dugun hizkuntza minoritarioaren erreferentzi marko soziohistoriko bat ematen bait digu, ingeles eta frantsesarena (hizkuntza arrotzak) ez bezalakoa, gure ikerketa-lanean ditugun lan-hipotesi nagusienetako baten haritik. Hala guztiz ere, garrantzi handiakoa izan arren, ez dugu marko hori azalpen honetan aipatuko.

Bigarren kapitulu gure ikerketako lau hizkuntzen (frantsesa, ingelesa, espainiera eta euskara) hizkuntz analisi kontrastiboa egin da, morfologiaren aldetik egin ere. Horrela, hizkuntz eskurapena analizatzeko zein alderdi linguistikoa aukeratu ditugun azaldu nahi izan dugu eta, era berean, ikertutako bigarren hizkuntzen lorpenak batzuk besteekin erkatzeko oinarri aski homogeneoak ezarri.

Alderdi enpirikoa populazioaren eta ikerketa honetan erabilitako analisi estatistiko-informatikorako tekniken azalpenarekin hasten da.

Gero, lana bere osoan gidatuko duten hipotesiak ezartzen dira.

Hurren, aurkitutako emaitzarik orokorrenen berri emango da eta, bukatzeko, lortutako ondorio nagusiak eta azken gogoeta batzuk.

Geure lanean zuzenean aipatutako bibliografia bakarrik emango dugu, azken oharretan sartuz.

Bukatzeko, ohar dezagun laburpen honetan bakar-bakarrik azalduko ditugula hizkuntz ukipen-egoeran bigarren hizkuntzen eskurapenean garrantzizko jotzen ditugun zertzeladak eta berauek ulertzeko ezinbestekoa dena.

2. OINARRI TEORIKOAK

Bi helburu ditu ikerketaren lehen atal honek:

— Lehenbizikoa, gure lan enpirikoari oinarri teorikoa ematea, orain arte erabili izan diren eredu psikosoziolinguistikoen ikuspegitik hizkuntzaren eta bigarren hizkuntzen arazoetara hurbilduz. Eredu horien artean bi erreferentzi marko azpimarratuko ditugu: kanadiarra eta Bristolekoa.

— Bigarrenekoa, gero lan enpirikoan erabiliko dugun geure eredu teoriko propioa ezartzea, lehen aipaturiko bi erreferentzi marko horietan erabili diren eredu psikosoziolinguistikoetan berezita aurkitutako aspektuak bateratzen saiatuz.

2.1. Psikosoziolinguistika kanadiarra

Esan dugunez, azken 30 urteetan Kanadan ekinaren ekinez burututako ikerketa psiko- eta soziolinguistikoek emango digute oinarri teoriko nagusia.

Gardner eta Lambert-ek 1959tik 1972ra bitartean burututako ikerketak izan dira tradizio horren abiapuntuetako bat.

Idazle horiek diote bigarren hizkuntzaren eskurapena fenomeno psikosozilogiko zentrala dela; horretan ez bait da bakarrik informazio berria lortzen, baizik baita beste komunitate etnolinguistiko bateko zenbait elementu sinboliko ere, norberaren bizigunean txertatuko direnak.

Horrela adierazi nahi dute eragile oinarritzkoa dela inguru kulturala, bai nortasun sozialarena bai lortutako elebitasun-motarena. Inguru soziokulturalaren eta bertako hizkuntzen estatus erlatiboaren arabera, Lambert-ek (1974) bereizten ditu:

— Elebitasun gehitzailea: bi hizkuntzak eta kulturak estimatuak badira eta gizabanakoaren garapenean ekarpen positiboak baldin badituzte.

— Elebitasun kentzailea: hizkuntza bat estimatua baldin bada eta bestea

ez, eta elkarrekin gatazkan baldin badaude, ondorio ezkorrak izan ditzakete gizabanakoaren ezagumenean eta, kasurik larrienetan, nortasunaren garapena oztopatu.

Honela garbi utzi da analisiaren lehen maila: soziala.

Bigarren maila norbanakoarena da, hots, psikologikoa. Elkarrekin loturarik gabeko bi faktore daude hemen tartean, bigarren hizkuntzaren eskurapena mugatzen dutenak. Alde batetik, adimenari eta gaitasunari dagokiona, hau da, hitzeko-adimena (5) edo hizkuntz gaitasunak. Bestetik, psikosozilogia: nortasun kultural eta etnikoa, sinisteak, estimazio eta itxaropenak, jarrerak, motibazioa eta bigarren hizkuntzak sortzen duen herstura.

Badute bi faktore-mota horiek loturarik eskuratutako hizkuntz gaitasunaren zenbait alderdirekin: lehenengoak ezagutza akademikoarekin eta bigarrenak komunikaziorako gaitasunarekin.

Bigarren hizkuntzen eskurapenaren ikerketetan alderdi psikosozialari ematen dioten garrantzia da Gardner eta Lambert-en ekarpenetan handienetako bat. Horren barruan gauzak ulertzeko bidea maizen ematen duten aldagaiak dira motibazioa, jarrerak eta egoerak sortutako herstura.

Bi osagai ditu motibazioak, Gardner-ek (1985) dioenez: osagai energetikoa, hau da, bigarren hizkuntza ikasteko desioa eta horretarako ahalegina, eta noranzko osagaia, hau da, motibazioaren nondik-norakoa edo bigarren hizkuntza ikasteko arrazioen zer-nolakoa.

Orientazioa ere bikoitza izan daiteke horien ustez: instrumentala, bigarren hizkuntza ikasteko arrazoi pragmatikoa edo norberaren onura denean, eta integratzailea, eskurapenaren xedea beste talde etnikora psikologikoki hurbiltzea denean.

Jarrera hitzak subjektuaren eta objektuaren (dela fisikoa, dela soziala) arteko erlazioa mugatzen duen kons-

truktoa adierazten du, eta subjektuaren portaera edo esanetatik ondorioztzen da.

Hiru osakin ditu Harding-en (1954) definizioan: ezagutza, nahimena eta portaera.

Gardner-en ustez (1985) garrantzi handia dute jarrera sozialek bigarren hizkuntzaren lorpenean, motibazioaren euskarri bait dira.

Idazle honek berak esanahi handikotzat dauzka bigarren hizkuntzaren lorpenean zenbait errealitateri buruzko jarrerak; hona hemen errealitate horiek: bigarren hizkuntza bera, hizkuntza hori duten talde eta hiztunak, kanpotarrak orohar, hartutako klaseak, irakasleak eta jarraitutako programak.

Autore hauek aintzakotzat hartzen dituzte bigarren hizkuntzaren eskurapenaren ingurune psikopedagogikoko aldagai horiek eta hezkuntza formalean eskuratzen denean emandako tratamenduari dagozkionak. Hori isladatzen dute Gardner-ek aurkeztutako ereduak eta Kanadan murgil-programare-


kin egindako lehenengo esperientziaren oinarri teorikoak ezarri zituen psikologo-taldea Lambert eta Penfield-ek elkarrekin osatu izanak. Programa hori 1965ean hasi zen Montreal-en «Saint Lambert programa» izenarekin.

Bigarren hizkuntzaren eskurapenean erabakiorra da subjektuak H2-ren eta horrekin zerikusia duten ekintzen aurrean jasaten duen herstura ere.


Azkenik, adierazten dute elebiduntze-prozesua ez dela bakarrik hizkuntz ezagutzak lortzea; aitzitik, emaitza paralinguistiko eta psikosozialak ere badaudela, baita feedback-ik ere ikaslearen motibazioan, jarreran eta identitatean. Horrela osatzen da psikosoziolinguistikaren jira osoa.

Sakonki ikertuak izan dira eredu hauek, eta esparru geopolitiko desberdinetan lortutako emaitzen euskarri enpirikoa ere badute; horregatik uste dugu, hasieran Kanadako eleaniztasun-egoerari egokituak baziren ere, gurerako ere azalpen-balio apur bat izan dezaketela.


• Lambert (1974): eredu soziopsikologikoa (•1)



• Gardner (1979): eredu soziohezitzailea (*2)



• Gardner (1984): eredu soziohezitzailearen ekintzabidea (*3)



Lambert eta Gardner-en ondorengo idazleek beren eredu propioak landu dituzte, haien hasierako planteamenduetatik abiatuz eta zenbait xehetasun erantsiz.

Horrela, Clement-ek testuinguru sozialaren ereduak prestatu zuen 1980an. Motibazioa eta ingurunekeko elementu kulturalak dira teoria honen osakin nagusiak.

Bi indarren arteko tirabirak sortzen du bigarren hizkuntzaren eskurapenean hasierako eragilea: beste komunitate etnolinguistikokoan integratzeko gogoaren indarrak eta horretan erabat irentsia izateko beldurrak. Hortik aterako da beste taldearengana hurbiltzeko ala harengandik itzurtzeko desioa.

Subjektua kultura bakarreko esparruan bizi baldin bada, indar honek bakarrak izango du eragina motibazioan; baina, kulturantzeko esparrukoa baldin bada eta etnien artean harremanak izateko modurik baldin badago, segun eta harreman horiek nolakoak diren eta zenbateko maiztasunez ematen diren, bigarren motibazio-indar bat sortuko da, eta norberaren gaitasun linguistikokoan konfidantza-maila bat; hauek erabakiko dute, lehengo motibazioarekin batera, bigarren hizkuntzako gaitasunaren maila.

Horrela, eta elkarrekin ukipen-egoeran dauden bi hizkuntzen estatus erlatiboaren arabera, elebitasun gehi-


tzailea edo kentzailea emango da. Gehitzailea, ikaslea hizkuntz gehiengokoa baldin bada eta bigarren hizkuntza eskuratzea bere nortasun etnolinguistikoarentzat mehatxu gertatzen ez baldin bada; eta kentzailea, alderantziz, gehiengoak hizkuntza minoritarioduna irensten baldin badu.

Giles eta Byrne-k (1982) egin dizkionte kritika batzuk Clement-en ereduari, baina honek bi berrikuntza garrantzizko dakartza:

- Hizkuntz konfidantzaren kontzeptua, Gardner-en hersturaren kontzeptua bereganatu eta birlantzen duena.
- Kruidener-ekin (1983) batera ariki, gaitzetsi egiten du Gardner eta Lambert-en (1972) motibazioa bitan banatzea. Ez dute uste Clement eta Kruidener-ek motibazio integratzailea ezinbestean instrumentalaren aurkakoa denik eta, bestalde, diote segun eta kultur-gunearen elementuak nolakoak diren, motibazio-modu desberdinak sortuko direla, esaterako: adiskidetasun-egarria, bidaiak egiteko gogo, jakintza edo arrakastak lortu nahia, besteak menderatzeko irrika, etab.

Berrikuntza hauek kontuan hartu ditugu, uste bait dugu bide ematen dutela eredu hori Kanadako esparru elebitza baino eremu zabalagoetara egokitzeke.

• Clement (1980): kontestu sozialaren eredu (•4)



Bada beste eredu bat Kanadako tradizio horretan: Hamers eta Blanc-en (1982) hizkuntz eskurapenaren eredu psikosozilogikoa, alegia. Autore hauek Gardner, Lambert eta Clement-en ideiak jaso dituzte eta orobat beste zenbaitenak ere: Dulay, Burt eta Cummins.

Honako kontzeptu nagusi hauen inguruan egituratu dute beren teoria: sozializatzeko-prozesuan balore sozialak barneratzen dira eta horrek nortasun sozial jakin bat eta hizkuntzarekiko jarrera batzuk ezartzen ditu, hizkuntza ikasi eta erabiltzeko motibazioan eragina dutenak. Horrela garatzen da gaitasun komunikatiboa eta hortan oinarrituta, gaitasun linguistikoko-kontzeptuala, retroelikadura positiboa sustatuz prozesuan.


Eredu honetan:

- Hizkuntzarekiko jarrerak, beronen balorazio formal eta funtzional gisa ulertzen dira.
- Bereiztu egiten dira hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko motibazioak.
- Bereiztu egiten dira gaitasun linguistikoko-kontzeptuala eta gaitasun komunikatiboa, ez direla erabat batera eskuratzen esanez.

Idazle hauen ikuspegi globalizatzaileak eta beren disziplinarrekotasun nabarmenak sar erazi dizkigu geure oinarritzko marko teorikoaren barruan.

Bai Clement-en, bai Hamers eta Blanc-en ereduak ikerketa enpirikotatik frogatu dira, eta emaitzen indarrez azaldu dute baliagarriak direla elebitasun-egoera desberdinetan.

• Hamers eta Blanc (1982): eredu psikosoziologikoa (*5)



*5

2.2. Gizarte-psikologia europarra eta hizkuntza. Bristol

Lehen esan dugun bezala, guk auke-ratu dugun ikuspegi teorikoa Kanadako Psikosoziolinguistikatik eta Hizkuntzaren psikologia sozialaren Bristolgo Eskolatik dator.

Giles da Bristol-en hizkuntzaren ikerketan gehien aritu dena. Tajfel-ek (1974) kategorizazio sozialaz esandakoa bildu du, kategorizazio hau ulertuz mundu fisikoan eta gizartean taldeak sortzen dituen ezagupen-prozesu gisa. Hortik dator identitate sozialaren sentimendua eta talde bateko izatearena

eta sentimenduan talde horri atxekita egotearen konszientzia. Horren ondorioz sortzen dira norberaren burua besteekin erkatzea eta lehia soziala, harik eta benetan bereiztea eta identifikatzea lortzen den arte.

Balore eta ezaugarri nagusi batzuen inguruan (hala deitzen ditu Smolicz-ek 1979) egituratzen da talde-identitatea; hizkuntza izan daiteke horietako bat.

Lambert-ek (1979) dio hizkuntza eta kultura osagai garrantzitsuak direla gizarte eleanizdun eta kulturantzidunetan, talde-, gizarte-, eta etni identitatearen osagai garrantzitsu izan ere.

Giles-ek (1986) adierazten du, berriz, etnizitatearen sinbolorik onena hizkuntza jotzen duten taldeetan, hiztun-talde bakoitzak gizarte osoan duen estatusaren baitan egongo dela kategorizazioa eta erkaketa soziala.

Bourhis eta Taylor-ekin batera, bizitasun etnolinguistikokoaren kontzeptua —VEL (3)— garatu zuen 1977an. Hona definizioa: «Taldea bat beste talde etnikoekiko harremanetan entitate berezi bezala aritzeko gauza egiten duten faktore sozioestruturalen multzoa». Hiru motatakoak dira faktoreak:

- Estatusa: taldearena (soziala, ekonomikoa, historikoa) eta hizkuntzarena.
- Demografikoak: populazioaren indarra (zenbatekoa) eta banaketa.
- Erakundeen babesa: Formala (mass media, hezkuntza, administrazioa, industria). Informala (kultura eta erlijioa).

Guzti horretatik sortzen da bizitasun etnolinguistikoko erlatibo subjektiboa (VERS), hots, ukipenean dauden bi hizkuntzek aipatutako faktoreei buruz duten indar erlatiboaz subjektuak duen iritzia. Honen baitan dago talde etnolinguistikokoaren indarra eta hizkuntzen ukipen-egoeran entitate berezi gisa irauteko kementa. Maila handiko VERS-ak salientzia (4) etniko handi-
goa esan nahi du.

Giles-ek 1982an «Bigarren hizkuntz lorpenaren taldearteko eredua» garatu

zuen Byrne-rekin batera. Horretan azaltzen dira hizkuntza minoritarioek hizkuntza maioritarioa ikaste-koan laguntza edo oztobobide izango dituzten baldintzak.

Hauek dira kontzeptu nagusiak:

- Taldeko izatea eta talde-identitatea.
- Hizkuntzaren balioa identitate etnikoa definitzeko.
- Bizitasun etnolinguistikoko erlatibo subjektiboa (VERS).
- Taldeen mugak eta higikortasuna.
- Hizkuntzarekiko jarrera, motibazioa eta asmoak.

Kontzeptu hauek garrantzizkoak dira, nahiz eta beste era batean izan, hizkuntz gehiengokoek hizkuntza minoritarioa ikastea denean ere. Hau da gure kasua.

Taldearteko eredu honen azken bertsio berraztertuan, Giles, Garrett eta Coupland-ek (1987) aipatzen dituzte hizkuntz gutxiengoko taldeek berengandik kanpo dagoen talde maioritarioaren hizkuntza ikasterakoan lortuko duten maila mugatzen dituzten baldintzak edo «proposizioak». Bi azpitaldetan banatzen dituzte ikasle-talde horiek:

1) *A* azpitaldea; talde horretakoek eskurapen murrizak egingo dituzte H2 maioritarioan,

- a) beren burua hizkuntza identitatearen osakin garrantzitsutzat duen talde bateko kideztat daukate-nean;
- b) beren taldearen estatusari oker eta aldatu beharreko irizten diotenean;
- c) VERS handia dutenean;
- d) taldeen arteko mugak finkoak direnean;
- e) beste taldeekin gutxi identifikatzen direnean eta, haiekin erkatuta, galtzaile direnean; ez dago kategorianitzeko identifikaziorik.

2) *B* azpitaldekoek, aitzitik, arrakasta handia izango dute gehiengoaren H2-ren eskurapenean. Izan ere,

- f) beren taldearekiko identifikazioa ez bait da sendoa; edo hizkuntza ez da talde horren etnizitatearen ezaugarri garrantzitsua; edo, baldin bada, H2 eskuratzek ez du subjektua mehatxupean jartzen; edo, jarrita ere, badaude hizkuntzaz kanpo identitatea mantentzeko baliabide onargarriak;
- g) subjektuak ez du bere talde barruko estatusaren ezagupen alternatiborik eraikitzen; edo, eraikitzen baldin baditu, bigarren hizkuntza ikastea eskatzen duten alternatibak dira;
- h) bere taldearekiko eta bestearekiko loturak zabalak eta malguak dira;
- i) subjektuak beste kategoria sozial askorekin identifikatzen du bere burua, eta pozik dago hala lortutako identitatearekin eta estatus endogrupalarekin;
- j) bere taldearen bizitasuna ez da bestearena bezain indartsua, baina uste du bigarren hizkuntza eskuratzek on egingo diola bere taldeko identitatearen hizkuntzaz kanpoko zenbait berezitasun mantendu edo indartzeko.


Laburtzeko, honako ideia hauek hartu dizkiogu autore honi:

- Pertsona orok garatzen du identitate sozial eta etniko bat.
- Gizarte eleanizdunetan, hizkuntza da identitate horren bereizgarrietako bat.
- Etnien arteko harremanak talde horietako bakoitzak elkarrekin-tza sozialen sarean duen estatusaren baitan daude.
- Subjektuak VERS-aren bitartez bereganatzen ditu erlazio horiek.

Hauek dira Giles eta lankideen ekarpenak:

- Identitate sozialari buruzko ikerketa enpirikoen tradizioa.
- Identitate sozialaren eraketan hizkuntzari eta beronen estatusaren aldagaiei arreta berezia eskaintzea.
- Talde minoritarioei buruzko teorizazioa gure egoeratik eredu kanadiarra baina hurbilago dagoena.
- VEL eta VERS kontzeptuak elkarrekin txertatzea.
- Lehen azaldutako ereduak bezala, badu honek ere bermatzen duen euskarri enpirikoa.

• Giles (1982): taldearteko ereduak (*6)



(SLA.: Second language acquisition. Bigarren hizkuntzaren eskurapena)

2.3. Laburbilduma

Nagusiki hemen azaldutako teoriak aintzakotzat hartuz eta Kanadako elebitasuna eta talde minoritarioena esplikatzen erabili diren eredu hauek egokitu nahian, eredu bat moldatu dugu, aurreko horiek elkarrekin txertatu nahi dituen eta aldi berean gure gizarte eleanizdunaren berezitasunei erantzun dioena. Eredu hau erabilitako diseinu empirikoarekin bat dator. Eredu horretan H2-ren eskurapenean baldintzabide diren aldagai-moten artean geure ikerketan aukeratu eta erabili ditugunak hartzen dira kontuan.

Baliabide metodologikotzat, eta egindako sailkapenaren erlatibotasunaren jakinaren gainean (oso eztabaidagarria bait da), bi aldagai-mota berezi ditugu:

1. Lehenengo mailan, subjektua talde bateko kide izateak eta bere estatus sozialak eragindako aldagai jakin batzuk hartzen ditugu kontuan.

Maila honetako aldagaiak, lehenengo, soziodemografiko deitu ditugunak dira:

- Subjektua zein hizkuntz taldekoa den. Gure lan honetan lehenengo hizkuntza espainiera duena da, gure ukipen-egoeran maioritaria delako, lanaren hipotesiak agintzen duen bezala. Beraz, ez dago desberdintasunik guk ikeritutako populazioan aldagai honen aldetik.
- Sexua.
- Adina (zein ikasturtetan dagoen): OHOk 5. eta 8.
- Maila sozioekonomiko eta soziokulturala; gure laginean homogeneo suertatu direnez, enpirikoki ikertu ez ditugunak.

Eta horiezaz gain testuinguruko aldagai deitu ditugunak:

- Eskolan H2 eskuratzeko erabili den programa edo eredu linguistikoa: A edo betikoa, B edo aldeko murgilketa (5).

Ikuspegi tradizionaltzat dauka bigarren hizkuntza beste edo-

zein eskolagai bezala hartzen duena, OHOk lehenengo ikasturtetik hasita, astean bataz beste hiru ordu emanez, guk ikertutako laginean bezala.

Aldezko murgil-programatzat instrukzioa bi hizkuntzetan ematen denekoa ulertzen dugu: ama-hizkuntzan eta bigarren hizkuntzan, hau ez ikasgai bezala hartuz, baizik eta hezkuntzarako medio bezala funtsean. Bigarren hizkuntzari astean 15etik 20 ordutara ematen zaizkio aurrekolatibak hasita.

- Bigarren hizkuntzaren ezagutza-maila familian.
- Leku eta giro bateko eta besteko H2-ren erabilera.

Honako leku eta giro hauek hartu dira kontuan: familia, lagunak, eskola, irakurketa, telebista, musika, kalea eta dendak.

Arlo honetan sartuko litzateke orobat nolako H2 ikasi aldagaia ere eta, horren barnean, gure egoeran euskara, alde batetik, eta hizkuntza arrotzak, ingelesa eta frantsesa, bestetik.

Aldagai soziodemografiko hauek mugatzen dituzte nolorebait bigarren mailako aldagaiak: maila psikosozialekoak.

2. Maila psikosozialean

- Identitate etnikoa.

Maila psikosozialean, lehenengo eragina identitate etnikoarena dateke, euskararenganako eta beronen hizkuntz komunitatearenganako jarrerak baldintzatuz, hauek direlarik, Gardner-ekin ikusi dugunez, motibazioaren euskarriak. Arlo horretan sartzen dira, era berean, motibazioaren nondik eta nolakoa, H2-rekin lotuta dagoen hizkuntz konfidantza eta herstura, VERSa, eta honekin lotuta dagoen etnozentrismo-maila.

- Gure ikerketan, identitate nazional edo etnikoa espainol aldekoa izan daiteke ala euskaldun aldekoa.
- Bigarren hizkuntzari buruzko jarrerak, eta horren hiltunez buruzkoak, diferentzial semantikoen bidez neurtu dira:

* Hizkuntza: erraza/zaila, itsusia/polita, miresmena/arbuioa, harrotasuna/lotsa, balioduna/baliogabea, garrantzizkoa/garrantzigabea, kultoa/ez-kultoa, gaurkoa/antigoalekoa.

* H2-ko hitzunak: burutsuak/leloak, atseginak/ez-atseginak, alaiak/tristeak, aberatsak/pobreak, langileak/alferrak, modernoak/antigoalekoak, adikorak/ez-adikorak.

- Motibazioa: ikerketa honetan H2 ikasi eta erabiltzera zuzendua, berau ikasteko gogoia eta horretarako ahalegina barne.

Motibazioaren norakoan bereizten ditugu:

- motibazio pragmatikoa, norberaren onura bilatzen baldin bada;
- motibazio integratzailea, dagokion hizkuntz komunitatearenganako hurbilpen afektiboa nahi bada;
- motibazio komunikatiboa, H2-ren hitzunekin elkarreragina nahi bada, derrigorrean haiekin integratu beharrik gabe.
- Egoerak sortzen duen herstura eta norberaren hizkuntz gaitasunekin konfidantza, hau da, konfidantza linguistikoa.
- Etnozentrismoa norberaren taldea kanpokoa baino gehiago baloratzea da. Hiru alderditatik analisatu da hemen hizkuntzaren alorra: H2-ri ematen zaion garrantzia, norberaren arrakasta-maila eta gizartearen onarpena.

Gardner eta Lambert-ekin batera ikusi dugunez, H2-ren eskurapen-prozesuko emaitzak maila psikosoziolinguistikoan lekutzen dira, eta horren barruan daude: 1) hizkuntz gaitasuna, bere osakin guztiekin eta 2) emaitza psikosozialak: motibazioan, jarreretan, hizkuntz konfidantzan eta baita identitate sozialean ere. Horrela eratzen dira Hamers eta Blanc-ek (1982) deskribatutako elebitasun-mota desberdinak.

Gure kasuan, hizkuntzaren aldetik bakarrik neurtu dira eskurapen-prozesuaren emaitzak, ahozko eta idatzizko

ulermena eta ekoizpena bereiziz eta, ekoizpenaren barruan, lexikoaren alderdia morfosintaxiarenetik.

Gure ereduan, gure ustez, bigarren hizkuntzaren eskurapenaren eredu oso eta integratzaile batean sartu beharreko aldagaiak hauek izango lirateke:

Bigarren hizkuntzen eskurapena. Parte duten aldagaiak (2)

(Guk landutako eredu)

- *Aldagai soziodemografikoak eta ingurunearenak*
 - Talde linguistikoa (ama-hizkuntzaren arabera).
 - Sexua.
 - Adina eta H2-ren eskurapenari emandako denbora.
 - Maila sozioekonomiko eta sozio-kulturala.
 - Hizkuntz programa-mota: tradizionala/murgilketa.
 - H2-ren maila familian.
 - H2-ren erabilera.
 - H2-ren estatusa taldean.
- *Aldagai psikosozialak*
 - Identitate etnikoa.
 - H2-ri eta beronen hitzunei buruzko jarrerak
 - H2 ikasi eta erabiltzeko motibazioa.
 - Motibazioaren nondik eta norakoa:
 - pragmatiko edo instrumentala,
 - integratzailea,
 - komunikatiboa.
 - Hizkuntz konfidantza eta herstura.
 - Etnozentrismoa.
- *Gizabanakoaren aldagai psikologikoak*
 - Hizkuntz gaitasunak
- *Emaitzak*
 - Linguistikoak (RL).
 - Paralinguistikoak (besteak).

3. IKERKETA ENPIRIKOA

Lana 360 ikaslek osatutako laginarekin egin genuen, hiru eraketa-ardatzetan banatuta egin ere:

— Bigarren hizkuntza: euskara, frantsesa eta ingelesa.

— Ikasturtea: OHOk 5.a eta 8.a.

— Hizkuntz programa: tradizionala edo H2-an alde zurgilduta.

Horrela sortu ziren 1. mailako azpilaginak deitu ditugunak. Horietako bi ardatz konbinatuta, 2. mailako azpilaginak sortu ziren. Ez zatekeen zaila hiru ardatzak konbinatuta hirugarren azpilagin bat sortzea. Lan honetan, ordea, ez dugu maila hori ikutu.

• Erabilitako analisi estatistikoak

- Koerlazio sinplea - Pearson (5).
- T-testak, batazbestekoen arteko diferentzien garrantzia(5).
- Faktore-analisia (5).
- Erregresio anizkoitza (5).
- Bereizketa-analisia (5).

3.1. Lan-hipotesiak

Gure hipotesiek honako bi aspektu hauek dituzte oinarri eta aspektu horiek konbinatzen ahalegintzen dira:

- Euskal Herriko hizkuntz ukipenean ematen den egoeraren nola-ko psikosoziolinguistikoa.
- Lehen deskribatu diren teoria psikosoziolinguistikoa.

1. hipotesia

Beste zenbait leku elebidunetan ikusi den bezala, espero da gure hizkuntz ukipen-egoeran ere aldagai psikosozialak (identitate etnikoak, jarrerak, motibazioak eta hersturak, batipat) izango dutela eragina H2-ren eskurapen-prozesuaren emaitzetan. Hau da, aldagai hauen eta hizkuntz errendimenduaren artean koerlazioa izango dela uste da.

2. hipotesia

1. hipotesian deskribatutako egoeran, espero da hizkuntz gehiengoko subjektuentzat, hots, ama-hizkuntza espainiera dutenentzat, alderdi psikosozialak inplikazio handiagoa izango duela ukipenean dagoen hizkuntza bat eskuratzerakoan, euskara alegia, ukipe-

nean ez dagoen beste batenarekin konparatuz, frantsesa edo ingelesa.

3. hipotesia

Ez dute aldagai psikosozial guztiek eragin berdina lorpen-emaitzetan. Uste izatekoa da identitate etnikoak, oinarritzko aldagai psikosozilogikoa denez, eragin handiagoa izango duela lortutako elebitasun-moduan. Hau da, beronen eta emaitza linguistikoen arteko oerlazioa handiagoa izango dela.

4. hipotesia

Prospektibaren aldetik planteiatzen da.

2. hipotesian deskribatutako egoeran (talde elebidun bateko gehiengo linguistikoko subjektuak bigarren hizkuntza ikasten ari direnekoa), uste da alderdi psikosoziala inplikatuagoa egongo dela H2-ren lorpenean, lan hau aldeko murgil-programan (5) egiten denean, bestelako programa tradizionalai jarraiki egiten denean baino.

5. hipotesia

Aurreko hipotesietan deskribatutako egoeran, uste da alderdi psikosozialaren inplikazioa handitu egingo dela subjektuen adina handitu ahalean.

6. hipotesia

Azkenik, espero da identitate etnikoak eta motibazio integratzaileak eta komunikatiboak eragin handiagoa izango dutela hizkuntz gaitasun komunikatiboan H2-n lortutako ezagutza linguistiko-kognitiboetan baino.

Clement eta Kruidener-en (1983) iritzien arabera, 7. hipotesi bat sortzen da.

7. hipotesia

Lehenengo egoeran bertan, uste da motibazio integratzaileak eragin handiagoa izango duela euskara bigarren hizkuntza gisa ikasterakoan, eta motibazio komunikatiboak indar handiagoa izango duela frantsesaren eta ingelesaren eskurapenean.

3.2. Emaitzak

Hiru eratako emaitzak bereizi ditugu:

- Lan-hipotesiei dagozkienak.
- Hizkuntzari buruzkoak.
- Besteak.

3.2.1. Lan-hipotesiei dagozkien emaitzak

1. hipotesia

Uste zen aldagai psikosozialek eragin erabakiorra izango zutela bigarren hizkuntzen eskurapenean.

• 7 laukian erregresio anizkoitzaren bitartez lortutako emaitzetan ageri denez, hipotesi hau aldeztatu egin da, hizkuntz konfidantzaren aldagaia (COL) delarik indarrik handiena azaldu duena, bereziki bigarren hizkuntza euskara denean.

Gogora dezagun zeintzuk diren, Clement-ek (1980) dioenez, hizkuntz konfidantzaren osakinak: herstura gutxi H2-ren erabileran eta norberaren hizkuntz gaitasunen pertzepzio positiboa.

Baina hiru bigarren hizkuntza horietan, alderdi soziodemografikoek (ikasturteak eta hizkuntz ereduak) eragin handiagoa dute H2-ko emaitzetan alderdi psikosozialak baino.

Erregresio anizkoltza: bigarren hizkuntzak

EUSKARA		INGELESA		FRANTSESA		GUZTIRA	
R^2 0.67144		0.76496		0.85340		0.70264	
CUR	0.57	CUR	0.61	MLI	0.83	MLI	0.53
MLI	0.36	MLI	0.55	CUR	0.37	CUR	0.46
COL	0.25	COL	0.14	COL	0.10	COL	0.15
NUL	0.16	ETN	0.13	NUL	0.06	NUL	0.14
ACL	0.12	MOI	0.09	MOT	0.06	ACH	0.06
MOC	0.07	MOP	0.08	MOP	0.05	MOT	0.04
ACH	0.06	MOT	0.04	MOI	0.04	ACL	0.04
INV	0.06	NUL	0.04	ETN	0.04	INV	0.04
NCL	0.05	ACL	0.04	INV	0.04	NCL	0.03
MOT	0.03	NCL	0.04	MOC	0.04	ETN	0.03
MOP	0.01	INV	0.03	ACL	0.02	MOP	0.02
		ACH	0.02	NCL	0.02	MOC	0.02
		NUL	0.02	ACH	0.01	MOI	0.01

2. hipotesia

Hipotesi honen arabera, ama-hizkuntza espainiera dutenentzat, euskararen eskurapenean handiagoa zatekeen alderdi psikosozialaren inplikazioa frantsesaren eta ingelesaren eskurapenean baino.

Bai faktore-analisiaren bai erregresio

anizkoitzaren emaitzek egiaztatu egin dute hipotesi hau.

Faktore-analisan, • 8, • 9 eta • 10 laukietan, ageri da faktore psikosozialaren, soziodemografikoaren eta linguistikoaren arteko elkarreragina handiagoa dela H2 euskara den taldeetan frantsesa edo ingelesa denetan baino.

• Euskara	ACH ACL ETN MOI MOT MLI COL INV NCL NUL MOP RL
CUR Trabeska 1 FAKTOREA Goitik behera 2 FAKTOREA	

• Ingelesa MLI	NUL COL RL ACL MOT NCL ACH MOC MOP CUR
INV Trabeska 1 FAKTOREA Goitik behera 2 FAKTOREA	MOI ETN

• 9

• Frantsesa MLI RL	NUL COL NCL MOT MOP MOC ACL MOI CUR
INV Trabeska 1 FAKTOREA Goitik behera 2 FAKTOREA	ACH ETN

• 10

Erregresio anizkoitzean ikusten dugu lortutako emaitzak arrazoitzeko argi gutxiago ematen dutela hizkuntz eredua edo programaren eta ikasturtearen aldagaiek H2 euskara duten taldeetan, bereziki aldeko murgil-programen jarraitzaileetan; baina aldagai psikosozial eta kontestualen argia handiagoa dela ingelesko edo frantseseko taldeekin erkatzen direnean. Garrantzizko aldagai psikosozilogiko bezala azaltzen dira hizkuntz konfidantza, H2-ri eta beronen hiztunei buruzko jarrerak, eta aldagai kontestual garrantzizko bezala H2-ren erabilera-maila.

Bestalde, hondar-bariantza (5) handiagoa aurkitu zen H2 euskara duten taldeetan. Horrek esan nahi du ikerketa honetan aintzakotzat hartu ez diren hainbat aldagaiek euskararen eskurapenean eragin handiagoa duela frantsesaren eta ingelesaren eskurapenean baino. Hau da, euskara bigarren hizkuntza gisa eskuratzeko modua dela hiru hizkuntza horien eskurapenean ilunena. (Ikus • 11)

3. hipotesia

Identitate sozial etnikoari dagokionez, ez faktore-analisan eta ez erregresio anizkoitzean aurkitu dugu datu argirik euskal identitate nazionala (INV) oinarritzko aldagai psikosoziala dela esateko; beraz, ez beste aldagaien ardatz bezala egituratzen da, ez eragin handiagoa du H2-ren eskurapen-mailan.

Ikusten da, hala ere, euskara H2 denean, euskal identitate nazionala inplikaturik dagoela lehenengo faktore psikosoziolinguistikoa (• 8), hau delarik, bestalde, bariantzaren proportziorik (5) handiena argitzen duen faktorea; aldi beran, hau azaltzen da beste aldagai psikosozialekin ongien elkarrelerlazonaturik, ingelesaren eta frantsesaren ikaskuntzan ez bezala. Orobat beti-beti ageri da euskal identitate nazionala etnozentrismoaren aldagaiekin (ETN) koerlazonaturik.

Erregresio anizkoltza: bigarren hizkuntzak

EUSKARA
R² 0.67144

INGELESA
0.76496

FRANTSESA
0.85340

GUZTIRA
0.70264

• 11

Horrek joera bat agerian jarri bide du: bigarren hizkuntzaren eskurapenean, identitate nazionalaren papera argiago dagoela H2 hizkuntz komunitatean present dagoenean, hau da, ukipen-egoeran dauden hizkuntzetako bat denean.

4. hipotesia

Aztertutako hizkuntz eredua edo programetan alderdi psikosozialak duen garrantziari dagokionez, gure ustez era horretako aldagaiek inplikazio handiagoa zuketean aldeko murgil-programetan tradizioaletan baino (ikus • 12).

Erregresio anizkoltza: eredu linguistikoak**MLI B 0.39098**

CUR	0.46
COL	0.24
ACH	0.16
NUL	0.15
ACL	0.14
NCL	0.10
MOT	0.07
MOI	0.06
ETN	0.05
INV	0.04
MOP	0.03
MOC	0.00

MLI A 0.66773

CUR	0.80
MOT	0.14
COL	0.14
MOC	0.13
ETN	0.05
MOP	0.04
MLI	0.04
INV	0.04
ACH	0.03
MOI	0.02
NUL	0.02
ACL	0.02
NCL	0.01

Erregresio anizkoltza: A eredua**EUSKARA****0.71058**

CUR	0.73
MOC	0.35
MOT	0.30
INV	0.16
ACL	0.14
MOI	0.13
COL	0.10
ACH	0.10
ETN	0.05
MOP	0.03
NUL	0.02
NCL	0.01

INGELES**0.81291**

CUR	0.92
COL	0.28
ACH	0.20
INV	0.17
ETN	0.14
ACL	0.12
MOI	0.10
MOT	0.08
NUL	0.07
NCL	0.04
MOP	0.04
MOC	0.01

FRANTSESA**0.6866**

CUR	0.79
MOT	0.14
MOP	0.10
COL	0.08
ACH	0.07
MOI	0.04
ETN	0.03
NUL	0.03
ACL	0.02
INV	0.02
MOP	0.06
ACL	0.03

Erregresio anizkoltza: B eredua**EUSKARA**
0.41327**INGELESA**
0.59643**FRANTSESA**
0.45829

CUR	0.69	CUR	0.60	CUR	0.51
ACL	0.26	MOP	0.28	COL	0.26
COL	0.19	INV	0.25	MOC	0.23
MOT	0.14	MOT	0.19	NUL	0.22
NUL	0.13	COL	0.17	INV	0.11
MOC	0.13	MOI	0.15	ACH	0.10
INV	0.12	ACH	0.15	MOT	0.08
MOP	0.05	MOC	0.08	NCL	0.08
MOI	0.05	NCL	0.05	ETN	0.07
ACH	0.04	ETN	0.03	MOI	0.07
NCL	0.02				
ETN	0.01				

•12

Egia azaldu da uste hori erregresio anizkoitzaren emaitzetan. Izan ere:

- A ereduan, erregresio-ekuazioak (5) esplikatzen duen bariantzaren proportzioa handia da, handia bait da ekuazio honetan ikasturtearen aldagaiaren auresangarritasuna (5).
- B ereduan, ikasturteak edo H2 ikasteari emandako urteek ez dute hain eragin erabakiorrik lortutako hizkuntz emaitzetan; gehiago dute aldagai psikosozialek. Bestalde, kalkulaturako erregre-

sio-ekuazioaren esplikazio-indarra orohar aski txikiagoa da, oso txikia ere bai; beraz, gure eredua ez da behar bezain egokia aldeko murgilketa-eredu honi jarraituz H2 nola eskuratzen den azaltzeko.

Bestalde, t-test analisisan aurkitu dugu aldeko murgil-programetako taldeetan, bereziki euskarakoan, areagotu egiten direla gure lanean aintzakotzat hartu diren ezaugarri psikosozialak eta soziodemografikoak, erregresio anizkoitzean gertatzen zen era berean,

- 13an nabarmentzen den bezala.

T-test analisia: A eredua - B eredua

	T	SIG
RL	-18.51	0.000
NUL	-12.13	0.000
COL	- 8.42	0.000
ACL	- 5.65	0.000
MOT	- 4.26	0.000
MOC	- 3.74	0.000
MOP	- 3.66	0.000
NCL	- 3.59	0.000
MOI	- 2.94	0.004

Hizkuntzarteko gonbarazioa A - B ereduaren artean

EUSKARA			INGELESA			FRANTSESA		
	T	SIG		T	SIG		T	SIG
RL	-10.93	0.000	RL	-7.57	0.000	RL	-15.95	0.000
NUL	- 7.85	0.000	NUL	-5.07	0.000	NUL	- 9.47	0.000
IN	- 7.19	0.000	COL	-3.72	0.000	COL	- 4.59	0.000
COL	- 6.67	0.000	ETN	4.82	0.000	MOP	- 3.09	0.003
MOT	- 4.66	0.000	INV	3.96	0.000			
ACL	- 4.46	0.000						
NCL	- 3.33	0.001						
MOI	- 3.18	0.002						
ACH	- 3.13	0.002						
MOC	- 3.07	0.003						
MOP	- 3.05	0.003						
ETN	- 2.66	0.009						

•13

Alabaina, faktore-analisiaren emaitzak aztertuz, ageriko gauza da A eta B ereduetakoko taldeen egituraketa faktoriala (5) berdintsua dela aldeko murgil-programetan eta tradizioaletan, faktore-analisan azaltzen denez (• 14 eta • 15). Guzti horretatik ondorioztatzen da, faktore-analisan ageri denez, alderdi psikosozialak eta alderdi sozio-demografikoak hizkuntz errendimenduan (RL) duten eragina, berdin-berdina dela kalitatearen aldetik murgil-programetan eta programa tradizioaletan, baina ez alderdi kuantitatibotik, aldagai psikosozialen eragin sakonagoa jasaten bait dute H2 aldeko murgil-programei jarraituz ikasten ari direnek, t-testen arabera; beraz, azken fi-

nean, aldagai hauen eragina hizkuntz lorpenetan handiagoa da programa tradizioalen jarraitzaileentzat baino, erregrasio anizkoitzean ikusi den bezala.

5. hipotesia

